

KRIMINALIZAZIO ETA ERASOen GAINETIK! AHT-rik EZ!

Gaur goizean Urbinan egin den, AHTko Obretarako Martxa Nazionalean, PNV-ren txakurak bortizkin oldartu dira Euskal Herriarren kontra, hainbat atxilotu, 25-30 inguru hospitalizatu eta 100 pertsona inguru identifikatu. PNV-k Euskal Herri Kapitalista batean bizitzera kondenatu nahi gaituzte eta horretarako AHT bezelako makro proiektuak inposatzen dizkigute. Inposaketa horren kontra agertzen denari errepresio bidez erantzuten diote, desjabetzak, identifikazioak, atxilotuak...

Gaur errepresio horren beste adibide garbi bat ikusi dugu, beste herri baten eraikuntzaren hautua egin dugunok, beraien Euskal Herri Kapitalistaren kontra agertzen garenok AHT gelditzea eskatzen dugunok, bortizki easotuak izan gara txakurradarengaitik, ondorioz Elgoibartar bat atxilotu dute eta desorden publikoak, autoritateari kontrako atentatu eta desobedienciaz egozten diote.

NAHIKOA DA! AHT-RIK EZ!
PNV LOTU ZURE TXAKURRAK!
ATXILOTUAK ASKATU! JUSTO ASKATU!
(ELGOIBAR EGINDAKO KOMUNIKATUA)

Traba guztien gainetik, pasa den zapatua 17an, 4000 lagunek Urbinako herritik abiatuta Miñaorarteko (Araban) martxa burutu genuen, AHTren eraikuntza laneko obrei paraleloan. Martxa amaitzean mila lagun inguruk okupazio baketsu batez lurak berreskuratzeari ekin genion. Baina egitasmo honen sustatzaileei ez zien grazia zipitzi egin desobedienciaz baketsuko ekintzak eta txikizioa zilegizko bihurtuko lukeen argumeturik ezean indarkeria erabili zuten okupazioa galarazteko. Ondorioa: 8 lagun atxiloturik, hamarnaka zauritu zeinetatik gutxienez 12 hospitaleetatik pasatu ziren (hauetatik 4 soraluzetarrak), ehundaka identifikatu, etab.

(SORALUZEN ETXETZ ETXETZ BANATU
ZITUZTEN ESKUORRIAK)

Internet eta "Egurren" jasotakoa

P.T.Paren AURKAKO JARDUNALDIAK URIBE KOSTAN

Urtarrilak 29-30-31an P.T.P-aren aurkako jardunaldiak burutuko dira Uribe kostan. P.T.P-ren aurkako asanbladatik salatu nahi dogu "plan territorial parcial" deritzen etxebizitza ordenazio planak, momentu honetan indarrean dagona, gure eskualdean izango duen eragina. Uribe Kostan 30.000 etxebizitzaren eraikitzea aurreikusita dago, horrek suposatuko luke eskualdean ditugun gune berde, larre eta gaur egungo agintarientzat baliorik ez daukaten ondare historiko eta kultural handiko lekuen txikizioa, Andra Mari kasu. Badira bi urte aurkeztu zutela Andra Marin P.T.P-a martxan jartzeko eraikitze plana, 8500 etxebizitzekin, herri mobilizazioei esker itzera bota behar izan zutena eta udaletxearen itzera diruzale eta txikitzailea agerian jarri zuena. Eraikitze plan hori itzera bota zan, baina P.T.P-ak, hainbat eskualdeen ordenazio urbanistikoa aurreikusten duenak (gure kasuan bilbao metropolitanoarena), indarrean jarraitzen dau, eta Andra Marin orain eraikitzen ez egon arren (eraikitzeko garai onak ez direlako krisia dela eta, eta P.N.V-ek hauteskundetan konprobau zuelako kontuz ibili beharreko gaia dala) argi dago aurreikuspen hoiak bete nahi dituztela, zer dela eta bestela egingo zuten lbarbengoako metro geltoki berria hain densitate baxuko zona batean? Ez dakigu noiz eta nola planteako duten eraikitze hauek, baina P.T.P-ak indarrean jarraitzen duen bitartean Andra Mari eta Uribe Kostako danonak diren larrak porlanez eta hormigoiez bete nahi dituzte, etxebizitza beharrezkoa denaren aitzakiarekin. Eskualdeko gazte batek ezinezkoa du dauzen etxebizitzak eskuratzea, eta erreztasunak jarri beharrean beharrezkoak ez diren 30000 etxebizitza eraiki nahi dituzte, konstruktora eta udaletxeen patrikak betetzeko eta herriarroi gure herria txikituz. 30000 etxebizitza zertarako? Norentzat? Eskualde honetan populazioa ez da hainbeste igoko, etxebizitza huts pila daude baina hoiak ez dira arrazoiak buruan dirua bakarrik duten gure udaletxeentzat. Etxebizitza eskubidea ukatzeaz gain espekulatzaile amorratu hauek gure herrian bizitzeko eskubidea ukatu nahi digute, hormigoiez betetako herri gris eta artifiziala sortuz, eta horren aurrean ezin gaitzeko geldirik egon.

LUR BARIK ARNASARIK EZ! PTPrik EZ!!

ALGUNOS APUNTES SOBRE TÁCTICAS DE DESOBEDIENCIA

En la lucha contra el TAV el abanico de acciones utilizadas ha sido muy amplio y en los últimos tiempos hemos visto cómo se multiplicaban los encadenamientos de personas a máquinas/bidones como forma de protesta con el fin de parar las obras o cortar el tráfico durante el mayor tiempo posible. (...) En un primer momento este tipo de acciones les cogían más desprevenidos pero ahora ya se han "normalizado" tanto para la Ertzaintza como para la prensa y entran dentro de los parámetros de lo que puede ocurrir, exceptuando algunos casos. Las acciones que en un principio tenían una fuerte repercusión mediática hoy en día tienen que ser mucho más grandes o espectaculares para conseguir el mismo efecto.

Si optamos por este tipo de desobediencia debemos sopesar varios factores: el tiempo que lograremos detener las obras, el efecto mediático que se conseguirá con esta acción y la represión a la que nos exponemos. Las acciones más impactantes mediáticamente como por ejemplo, la de principios de agosto en Donostia o las ocupaciones simultáneas de obras a finales de octubre, sí han conseguido ese efecto de denuncia mediática de un proyecto y de repercusión en la opinión pública. (...) Un aspecto negativo es la dependencia de la prensa en este tipo de prácticas ya que en cierto sentido le otorgamos la efectividad de nuestros actos.

Las tácticas utilizadas en cada momento deben adecuarse a las circunstancias y sopesar los riesgos y los beneficios que conlleven. Utilicemos la imaginación y desbordemos los cauces de lo que se supone que vamos a hacer. Las fuerzas de represión estudian lo que ocurre para aprender la lección y caminan sobre lo que pueda ocurrir: llevan cizallas para acabar rápidamente con los encadenamientos y o como en la última firma de actas en Zornotza se adelantan a una situación tomando la zona mucho antes de que fuese la concentración para evitar que la gente se concentrara en un lugar donde obstaculizar los levantamientos. Realicemos una fuerte autocrítica para ver dónde y en qué hemos fallado y así podremos mejorar y aprender para desbordarles una y otra vez y seguir dando guerra. (EXTRAIDO DEL DOSSIER DESARROLLISMOAREN ERAGINAK DURANGALDEAN 2009KO URTARRILAK)

ABADIÑO SANBLASETAN

Euskal Herriaren historia arrantzale, abeltzain eta nekazariak idatzi dute. Euskal Herriak arrantza, abeltzaintza eta nekazaritza izan ditu oinarri gaur egun arte. Gure historia herritar xume hauek egin dute. (...)

Alde batetik, ekoizpen sistema molde jakin bat bultzatzen dute soilik; nekazaritza produkzio txikiak, nekazaritza ekologikoa, nekazari, abeltzain eta arrantzaleen aldeko enpresa politikak lagundu beharrean, horiek oztopatu eta nekazari, abeltzain eta arrantzaleak babesten ez dituzten politika eta enpresa moldeak sortzen dituzte.

Horren guztiaren adierazle da EITBko Sustrai programa, Eusko Jaurlaritzak eta Bizkai, Gipuzkoa eta Arabako foru aldundiek babesturiko publizitate iraunkorra. Programa horrek irauten duen denbora guztian, aipatutako instituzio horiek sortutako marken propaganda besterik ez digute eginen, horra hor Gure Okela, Bizkaiko Txakolina, Idiazabalgo Gazta, Kalitatea fundazioa... Sustrai programa horren ikus-entzuleek erraz pentsa dezakete Euskal Herrian ez dagoela beste arrantzale, abeltzain eta nekazariarik; hau da, Gure Okela, Bizkaiko Txakolina, Idiazabalgo Gazta eta Kalitatea fundazioa direla lehen sektoreko ekoizle bakarrak.

Nekazaritza eta abeltzaintza gure herriaren eta euskal kulturaren oinarria eta sustrai izan dira. Gaur egun, gero eta arazo gehiago ditugu merkatuan produktu naturalak erosteko. Arazo hori gure agintariak sortu dute: Euskal Herria, ingurune berde eta naturala zena, porlanez beteriko ingurune bihurtzen ari dira: autobideak, errepideak, zubiak, zaborteak, harrobiak, trenbideak... Azpiegitura horiek guztiak hainbat nekazaritza lur eta nekazaritza ustiakuntza desagerrarazi dituzte; arrantza gero eta zailagoa da itsasoaren egoera biziki larriagatik...

Urtero legez, Sustrai programan ziur asko otsailaren 3ko Abadiño San Blas azoka erakutsiko dute, nekazari produktu eta abere ezin hobeak egongo diren azoka, zuhaitz eta landare ezin hobeak salduko dituzten azoka. Baina zein lurretan landatuko ditugu, gure Euskal Herri berde hau hormigoiz betetzen badigute? Otsailaren 3an azokara joatea gomen datzen dizuet; era berean, talo, sagardo, gazta eta txakolin trago artean burua altxatu eta Mendiola auzoan nekazaritza eta abeltzaintza hain "sutsuki" defenditzen duten EAJko agintari horiek zein sarraski eginen ari diren ikustera gonbidatzen zaituztet. Joan bertara, ongi etorri beroa egingo dizuete, urtarrilaren 17an Urbinan egin ziguten ongi etorri ezin beroagoaren antzera. (GORKA ERDOIZA . BERRIAN ARGITARATUTA)

K
O
L
A
B
O
R
A
Z
I
O
A
K